



Euskaltzain poeta

'Maitasunaren botanika' Sarrera-hitzaldiarekin Castillo Suarezek euskaltzain oso zina egin du / 2-4

IÑAKI MENDIZABAL

Arbizuko Udalak Olatzea errentan eman eta hotel gisa kudeatzeko deialdia egin du / 7

Rafael Carasatorre Vidaurrek liburu batean ipuinak, etxe izenak eta erroldak jaso ditu / 6

Dani Saldise Osasuna Magna Xotara itzuliko da datozen bi denboraldietarako / 12

Aitor Oiarbide Nafarroako Harri Jasotze Txapelketan ariko da, sanferminetan / 13

Jon Arretxe idazlearen liburuetan oinarritutako telesaila grabatzen ari dira / 23

"Ulertzen dut poesia badela gogoeta egiteko genero bat"

CASTILLO SUAREZ IDAZLEA ETA EUSKALTZAIN OSO

Uztailaren 1ean Euskaltzaindiaren Sarrera-hitzaldia egin zuen Iortia kultur gunean: 'Maitasunaren botanika'; ondoren, euskaltzain oso zina egin zuen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2022ko irailaren 22an izendatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain oso Castillo Suarez idazle altsasuarrak, eta uztailaren 1ean, Iortia kultur gunean egindako ekitaldian, Akademiaren Sarrera-hitzaldia egin zuen: *Maitasunaren botanika*. Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela zin egin ondoren, euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jaso zituen Andres Urrutia euskaltzainburuaren eskutik.

Hitzaldian, idazleak bere bizitzan eragina izan duten poema liburuak gogoan izan zituen, eta hainbat liburu eta egile hautatu zituen, eragina izan dutenak berarengan eta bere idazkietan. Miren Agur Meabek *Zazpi gutun eta erditxo Maitasunaren botanikariari* bidez eman zion erantzuna, poetikari eta estetikari buruzko gogoeta intimo batean. Sahatsa eta pi eta Juantxo Zeberio musikariek musika jarri zuten, eta ekitaldi ofiziala amaitzean, Suarezek Altsasuko Udalaren oparia jaso zuen: kintoek

daramaten zintaz apaindutako gorosti makila, non Suarez sinboloetako bat eta ekitaldiaren sinboloa izan zena agertzen den: iratzea. Behin Iortia zabalgunean, herritar, agintari eta dantzariak zortzikoa dantzatu zuten. Sarrera-hitzaldiaren ekitaldia aurretik Euskaltzaindiak Osoko bilkura egin zuen Altsasuko udaltxean.

AKADEMIA

Hasteko, zer da Euskaltzaindia?

Euskaltzaindia hizkuntzaren akademia da; euskararen akademia ofiziala, esan dezagun. Bi atal ditu: alde batetik, hizkuntzaren korpua deitzen dena edo hizkuntza bera eta, bestetik, hizkuntzaren estatusa edo hizkuntzaren egoera lantzeko atala. Egia da askoz ere ezagunagoa dela lehenengoa, Euskaltzaindiak egiten duen arautzea eta abar. Jendeari Euskaltzaindia aipatzean arauak datozkio burura: "Zergatik lehen hitz honek h-a zeukan eta orain ez...". Jendea ez da jabetzen erabaki horien atzean izugarritzko lana dagoela; dokumentazio lan handia. Ho-

rrelako erabaki bat hartzeko aurreko testuak, erabilera eta abar aztertzen dira. Ez dira nolahi hartzen.

Nola antolatzen da?

Atal bat Iker da eta bestea Jagon. Iker hizkuntzaren gramatikaz eta arautzeaz arduratzen dena da, eta Jagon hizkuntzaren estatusaz arduratzen dena. Batzorde batzuk daude, batzuk finkoak dira eta hor material bat lantzen da. Gero, hilabeterako bilkura bat daukagu, normalean aldiro toki ezberdin batean; Euskal Herri osoan egiten ditugu. Azkenekoa Altsasun egin genuen, baina aurretik Baionan egin genuen; Iruñean, Donostian... Hilabetero egiten dugu, eta hor erabakiak hartzen dira. Aldez aurretik batzorde batzuek landu dute hori. Beste batzorde batzuk daude sutsikorak deituak, eta egitasmo jakin baterako sortzen dira eta egitasmoa bukatzen denean deitzen dira. Euskaltzain buru bat dauka, Andres Urrutia, eta zuzendaritza bat, eta zuzendaritzan dago Nafarroako ordezkari bat, Sagrario Aleman dena, hau da, Nafarroako Euskaltzaindiko

arduraduna Sagrario Aleman da. Egoitza nagusia Bilbon dago eta Gasteizen, Iruñean, Donostian eta Baionan ordezkariak ditu. **Zenbat kide ditu? Zenbat euskaltzain oso zarete?**

Kontua da euskaltzain osoek 75 urte betetzen dituztenean euskaltzain emeritu bihurtzen direla. Orduan, horietako batzuek bilkuretara joaten jarraitzen dute. Adibidez, Patxi Zabaleta, nik haren lekua hartu dudan arren, bilkuretara joaten jarraitzen du. Gehienez, 32 euskaltzain oso. **Zer egin behar da Euskaltzaindiako parte izateko? Zein izan da zure ibilbidea?**

Ni 2016. urtean izendatu ninduten euskaltzain urgazle. Urgazlea izatea da nolabait aitortzea euskararen alde egin duzun lana, eta urgazle izan nahi duzun proposatzen dizute. Nik baietz esan nuen. Urgazle izateak aukera ematen du batzordeetan parte hartzeko, eta nik hizkuntzaren estatusa lantzen den batzorde horretan parte hartu izan dut. Egia da Euskaltzaindiak gai zehatzetarako adituak deitzen dituela, eta ez duzula zertan urgazle izan bertan hartzeko. Euskaltzain oso izateko, hutsarte bat dagoenean, hau da, norbait emeritu bihurtzen denean, hutsune hori bete behar dela iragartzen dute. Gehienak herrialdearen araberrakoa dira. Ni Nafarroako ordezkaria naiz, esaterako. Uste dut denak ez garela herrialde zehatz batekoak, garai batean pertsona bat jaiotzen zen herrialde batean eta hor hiltzen zen, baina gaur egun herrialde batean jaio eta beste batean lan eta bizi dira. Horrelako egoeretan ez dakit pentsatu duten; pentsatzen dut baietz. Ni Nafarroan jaio naizenez eta bizi naizenez, zalantzarik ez zegoen. Baina ez dakit den denak irizpide horren arabera aukeratuak izan garen. **Euskaltzain oso bihurtzeko bozketak bat egon behar da, ezta?** Hori da. Hutsunea iragartzen da, eta orduan Euskaltzaindiko norbaitek hutsune hori betetzeko pertsona bat proposatu behar du. Hiru euskaltzain osoren si-



nadura behar da. Nire kasuan, lau izan ziren: Sagrario Aleman, Paskual Rekalde Nafarroan azkenaren sartu zena, eta gero, bi idazle, Bernardo Atxaga eta Miren Agur Meabe. Horiek sinatu

"EUSKALTZAIN URGAZLEA DA AITORTZEA EUSKARAREN ALDE EGIN DUZUN LANA"



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Castillo Suarez Euskaltzain Oso izendatu berri. IÑAKI MENDIZABAL

zuten nire hautagaitza. Bi geunden, baina ni atera nintzen. Boz-keta irailan egin zen, Nafarroako Legebiltzarrean.

Bederatzigarren eserlekua egokitu zaizu, Patxi Zabaletarena zena, zer esan nahi du horrek?

Jendeak galdetzen dit ea zer letra egokitu zaidan, Espainiako Akademiakoa horrelakoa delako. Nik ez dakit... Aurretik Joxe Agerre egon zen, ondoren Damaso Intza eta azkenik Patxi Zabaleta.

Zein da zure lana?

Nik sustapen batzordean parte hartzen dut. Hilabetero joaten naiz dagokion tokira osoko bilkurara. Egiten ari naizen beste lan zehatz bat da Itxaro Borda-ekin eta Miren Agur Meaberekin poesia jardunaldi bat antolatzea, Lekeition. Batzorde suntsikor deitutako horietako bat

da. Bukatzen dugunean ez dakit nazkatuko garen eta ez dugun berriro antolatuko, edo ongi aterako den eta hurrengo urtean errepikatuko dugun.

Altsasuko udaletxean osoko bilkura egin zenuten, zer erabaki zen bertan?

Osoko bilkura baten ordena da, esaterako, Euskaltzaindiaren hiztegia adibide batzuk ematen dira eta horiek batzuetan sexistak edo desagokiak dira, eta hori, egiten ari garen lan bat da; berritzen, kentzen, egokitzen eta ordezkatzaren desagokiak diren adibide horiek. Egiten ari garen beste gauza bat da Espainiako Autonomia Erkidegoen izenak normalizatzea: asmatzen ari naiz, baina nola esan behar da, Palma, Palma de Mallorca edo Maiorkako Palma... Nola eman behar

diren euskaraz. Gero ortotipografia deitzen dena arautzen ari gara ere, noiz den letra etzana, noiz ez, zer idatzi letra larriz, xehea noiz, eta abar. Horrelako gauzak erabakitzen dira osoko bilkuretan. Dena dira gauza linguistikoak. Norbaitek aurretik landu ditu, bilkurara eramaten dira, azaltzen dira eta proposamenak egiteko epe bat ematen da. Batzuetan esaten digute hurrengo bilkuran erabakiko dugula, eta beste beste gauza batzuk bilkura horretan bertan erabakitzen dira.

Eta non ikus daitezke erabakitako arau horiek?

Esan beharra dago Euskaltzaindiak webgune bikaina duela (*euskaltzaindia.eus*). Baliabide pila bat daude eta norbaitek zerbait bilatu behar

badu izugarria da bertan da goen materiala. Argitalpen zerbitzu bat ere badauka. Formatu klasikoan ere argitaratzen dira, eta Euskara aldizkaria.

"BEDERATZIGARREN ESERLEKUA EGOKITU ZAIT; JENDEAK GALDETZEN DIT EA ZER LETRA DEN"

"PATXI ZABALETAK 1986AN EGIN ZUEN HITZALDIA, ETA EUSKARAREN LEGEA EZ DA ALDATU"

Castillo Suarezren Maitasunaren botanika

Pikondoa

Idazlea: Harkaitz Cano, Durangon erosi zuen lehenengo poema liburua: *Kea behelainopean bezala*.
Poema: *Egun ona* (*Gente que trabaja en los tejados*).

Palmondoak

Idazlea: Ricardo Arregi Diaz, *Hari hauskorak* Imanol Arratibelek omentutakoa, Arkatz liburu dendatik.
Poema: *Oasiak basamortuan* (*Kartografia*).

Albitza

Idazlea: Jose Luis Otamendi, *Lur bat zure minari*.
Poema: *Foto batean sartuta zeukaat / minutu hura... (Pozta eta gero)*.

Iratzeak

Idazlea: Jon Gerediaga, beti jartzen da irau behar duenaren alde.
Poema: *Zer esan nahi dute / lore urdinek sasietan... (Argia, lurra, zuhaitza, zerua)*.

Limoiondoa

Idazlea: Miren Agur Meabe, bere baratzean gin-tonic-etarako limoiak ditu.
Poema: *Baratzeko deia* (*Bitsa eskuetatik*).

Esporak

Idazlea: Igor Estankona *iratzeei esporak* liburua idatzi zion.
Poema: *Maite nauzun jakiteko* (*Anemometroa*).

Oihana

Idazlea: Bernardo Abaga, ezin izan zuen *Etiopia* liburua lortu, oparitu zioten arte.
Poema: *Bizitzak* (*Poemas & híbridos*).

Larreak

Poema: *Ume batek amarengan leku berri bat sortzen du...* (*Ebako urak*)
Leire Bilbao.

Zuhaitz debekatuak

Idazlea: Amaia Lasa, *Jai lehenagokok* poemak. *Espeleologia* poema liburuetan.
Poema: *Ene paradisuetan / zuhaitz asko debekatuak daude* (*Amaia Lasa*).

Hitzaldiaren hasiera euskararen normalizazioa aipatu zenuen, zer egin daiteke?

Patxi Zabaleta ordezkatu behar nuen, Patxi Zabaletak egin zuen Sarrera-hitzaldia hartu nuen eta bertan Nafarroako Euskararen legea zabaldu beharraz aritu zen. Asuntua da 1987an egin zuela, eta lege berberarekin jarraitzen dugula. Nik lege horrek dituen hutsuneak eman nituen aditzera, eta gauzak, zoritxarrez, ez direla hainbeste aldatu. Esaterako, ofizialtasunik gabe jarraitzen dugu. Irakaskuntzari dagokionez, kezka begiratzen diegu azkeneko urteetako matrikulazio datuei. Komunikabideak dirulaguntzen oso menpekoak dira, eta euskarazko hedabideen egonkortasuna mugatzen da. Administrazioan lege garapenik gabe jarraitzen dugu.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »



Ekitaldi ofizialaren bukaeran dantzari, agintari eta herritarrek Castillo Suarezi Altsasuko zortzikoa eskaini zioten. JUAN MARI APAOLAZA

AURREKO ORRIAN HASTEN DA »

Zein da Euskaltzaindiaren sasoia?

Euskaltzaindiak badu abantaila bat, eta da Euskal Herri osoko erakunde bat dela, eta horrelako oso gutxi daudela. Euskal Herri osoa hartzen du. Euskaltzaindia lan handia egiten ari da ezagutzera ematen, zabaltzen. Orain arte jendeak zuen ideia zen erudito kuadrilla bat zela, apaiz eta fraide kuadrilla bat, eta hala zen. Hizkuntzaren zainzaileak erlijioari lotuta egon dira, euskara batua Arantzazuko santutegian sortu zen, eta ez da kasualitatea. Gaur egun ikusgarria da, eta komunikazioan izugarritzko lana egin da ere. Oraindik baditu garai bateko zentzuak, nire izendapenaren ekitaldia esate baterako.

SARRERA-HITZALDIA

'Maitasunaren botanika' zen zure Sarrera-hitzaldia. Nondik sortu zen?

Garbi neukan literatura garai-kidearen inguruan egingo nuela, eta nik ongi ezagutzen dut poesia. Nire haurtzarotik hasi nintzen, eta nire bizitzan mugarri izan diren poema liburuak aukeratu nituen. Garbi neukan zein liburu ziren. Orduan, kontua zen zerrenda bat banekala, baina gauza zen nola harilkatu 40 minutuko diskurtso batean. Erabaki nuen nire bizitzako pasarteak eta naturako elementuak izan zitezela hariak. Maitasuna zehazki, maitasunari buruzko

gogoeta. Nik ulertzen dut poesia badela gogoeta egiteko genero bat. Orduan, hortik abiatuta, nire irakurketetatik eta ibilbidetik abiatuta, mintegi bat egitera iritsi nintzen. Mintegia zer da? Nire poetikaren elementuak biltzen dituen mintegia. Horrekin bukatu nuen.

Zein izan zen prozesua?

Abantaila izan nuen nire aurretik Miren Agur Meabe euskaltzain oso sartu zela, eta bere Sarrera-hitzaldiari erantzuna ematea tokatu zitzaidala. Orduan, egoera horretan jarria nengoen, gutxi gora behera banekien nondik jo behar nuen. Askotan idazten duzu eta ez dakizu ahozko-rako balioko duen, zenbat denbora kostatuko den irakurtzea edo jendaurrean irakurtzekoa den. Garbi neukan ahots gora irakurtzeko testua zela, testu arina da.

Etxean entseatu eta kalkulatu zenuen?

Miren Agurren erantzunerako hamabost eta 20 minutu inguru nituen eta bost orrialde eta erdi idatzi nituen. Kasu honetan, ez da hamaika orrira iristen... Bi

"EUSKALTZAINDIAK ABANTAILA BAT DU: EUSKAL HERRI OSOKO ERAKUNDE BAT DA; IKUSGARRIA DA"

aldiz irakurri nuen etxean, bi egun falta zirenean eta bezperan, ahots gora, eta zuzenketa batzuk egin nituen. Esan beharra dago testua nik egin nuela, baina zuzentzen Fernando Reyk lagundu zidan.

Zergatik landareak? Eta zergatik landare jakin horiek?

Hitzaldian nire bizitzarekin harremana duten landareak aipatzen dira: pikondo bat, nire gurasoan etxean dagoena; palmondo bat, nik maite dudana idazle batek aipatzen dituelako eta, nik uste, Kanariar irletan bizi izan delako dela; albitza, maite dudana liburu baten atal bat delako; iratzeak, erabiltzen dudana sinboloa, *Irautera* liburuan erabili nuena hitz joko hori egiten dudalako, iratzea eta irautea; limoioondoa, Miren Agur Meaberen baratzean dagoelako; esporak, iratzeekin lotuta; oihana eta larreak orokorrak...

Iratzeen presentzia handia izan zen. San Juango Altsasuko ohitura hori nolabait egun horretan presente egon zedin.

Altsasurekiko simbolismo handia: iratzeak, ezkil errepikarekin iritsi lortiarra, Altsasuko Udalaren kintoen makilaren oparia...

Eta zortzikoa Unairekin. Unai Uhalde nire txikitako laguna zen, asko maite dut, zortzikoa parte hartu zuten guztiak, baina bereziki ilusioa egin zidan Unai dan-

Castillo Suarezen poetikaren elementuen mintegia

Lehendabiziko belarkia:

idazteko ausarta izan behar da.

Bigarren belarkia:

poesia ez da autofikzioa.

Hirugarren belarkia:

poemak idaztean jendearenagana iristea dugu helburu.

Laugarren belarkia:

poesia ez da gubi batzuzendeko generoa.

Bosgarren belarkia:

poesiak azaltzeko balio du.

Seigarren belarkia:

poesia antidoto bat da.

Zazpigarren belarkia:

poesia ez da terapeutikoa.

Zortzigarren belarkia:

idaztea irakurtzea da; eta alderantz.

Bederatzigarren belarkia:

poesia behatzailea da.

Hamargarren belarkia:

idaztea bizirautea da.

Hamaikagarren belarkia:

idaztea ekintza politikoa da.

Hamabigarren belarkia:

idaztea oroitzea da.

Hamahirugarren belarkia:

idaztea hitztagigintza eriketa bat da.

Hamalauargarren belarkia:

poemak alferrikakoak eta ezinbestekoak dira aldi berean.

Hamabosgarren belarkia:

poemak bakardadetik aldentzeko idazten ditugun arren, bakardadeaz idazte dugu maiz.

tzatzen ikustea txikitatik lagun minak garelako. Hori ez zegoen nire esku. Orain badakit Betisa Anda Altsasuko kultur teknika-ria eta nire lagun batzuk egon zirela hori antolatzen, Euskaltzaindikoa kideekin eta enpresa batekin batera.

Landareak bai, baina Miren Agur Meabek esan zuen bezala, elurra falta zen.

Askotan aipatzen dut elurra nire obran; nire sinboloetako bat da. Miren Agur Meaberi erantzun nionean, berak itsasori buruz egin zuen eta nik ez dakit ezer itsasoari buruz, or-

"HITZALDIAN AIPATZEN DIRA NIRE BIZITZAREKIN HARREMANA DUTEN LANDAREAK"

duan beste toki batetik aterata nintzen. Esan nion nik ez nuela elurrik aipatuko eta nahi bazuen berak egiteko. Berak adierazi zidan agian elurrari buruz egingo zuela, nola aipatzen dudana elurra nire liburuetan. Kontua da berak ere ez zuela egin. Benetako erantzuna eman zidan, esan nahi dut, nik eman nion nire hitzaldia eta bera hurrengo egunean Gali-ziara joan zen, trenez, biok maite dugun idazle baten etxera, Olga Novorenara, eta bidaia horretan idatzitako gutunak ziren.

Zuk aurretik irakurri zenuen?

Eskatu nion nahiago nuela egunean bertan entzutea.

Eta espero zenuen?

Ez nuen espero. Kariño handiarekin egingo zegoen. Nik uste dut biok ekarri dugula gauza bat Euskaltzaindian. Zera da: gure hitzaldiak informalekoak dira. Ez dakit nola esan. Gure soslaia horrelakoa da. Besteak linguistikak dira, eta ongi ezagutzen duten gaia zurrunagoa da. Orduan nik uste jendeak estimatu zuela, eta uste dut espero zutela horrela izatea erantzuna ere. Ezagutzen gaituzte. Hurrengo Itxaro Borda izango da, eta uste dut mugari buruz egingo duela hitzaldia.

Idazle asko zaudete dagoeneko Euskaltzaindian, literaturari buruz hitz egiteko tartea duzue?

Momentuz ez dugu gure zirrikitua ireki. Dinamika oso barneratua dago. Lehengoan Miren Agurrek esaten zidan ikasi behar-ko dugula oharra egiten. Ez dakigu oharra nola egin, zer sistematika dagoen.

Hitzaldia Euskaltzaindiaren argitalpenen batean jasoko dute?

Bai; Euskara aldizkarian. Andres Urrutiak eta Javier Olló alkateak egindako hitzaldi edo sarrerak, nire hitzaldia eta Miren Agur Meaberen erantzuna sartuko dituzte.

Nola bizi izan zenuen?

Ni lasai egon nintzen. Egia esan, terribilea iruditu zitzaidan; esan nahi dut, kontuan izan ni kanpoan nengoela, errepika entzuten nuen, eta han nengoen ni. Momentu hura luzea egin zitzaidan. Sagrario Aleman eta Miren Agur Meabe nire bila etorri zirenean ere ez nekien nondik joan behar nintzen. Ez dakit zaharkitu hitza erabili behar dudana gauza horiek deskribatzeko; bai, zaharkitua.



ASTEKOA

AITZIBER CAMPION GANBOA

Uda: Desberdintasun sozial, ekonomiko eta generokoen oroigarri.

Uda, askok hainbeste itxaroten duten urte-saso hori, jendartean irauan egiten duten desberdintasunen oroigarri mingots bihurtzen da. Batzuek oporrak hartzen dituzte; beste batzuk, ordea, bizirauteko borrokan ari dira, egoera prekarioan. Desberdintasun sozialak, ekonomikoak eta generokoak agerian, berriz ere.

Diru-sarrera kopuruen araberakoak dira aisialdirako aukerak. Batzuentzat luxuzko egonaldia eskusiboak; gainezka dauden espazio publikoak besteentzat; beren etxeetan geratu, azkenentzat. Batzuen haurrak ordaindutako kanpaldietan egongo dira, aitona-amonekin (amonekin, bereziki) besteak eta azkenak ahal denarekin, ahal denean, ahal den lekuan.

Testuinguru honetan, emakumeek oztopo handiagoak dituzte aisialdirako. Genero-estereotipo errotuak daude emakumeek gizartean dituzten rola definitzen dituztenak eta etxeko lanetara eta beste batzuen zaintzara mugatzen dituztenak, baita oporretan ere. Zer esan nahi du horrek udan etxe askotan? Oporretan dauden etxeko haurren zaintzaren arduradun bakarrak direla.

Udak gurean errotuta dauden desberdintasunak nabarmentzen ditu. Ahalegin kolektiboa egin behar da atsedeen- eta jolas-aukerak berdintasunez eskuratzeko, baita diru-sarreraren banaketa bidezkoagoa sustatuko duten eta guztientzako lan-baldintza justuak bermatuko dituzten politikak garatzeko ere.

Horrela gozatu ahal izango dugu benetan bidezkoa den udaz, horrela bakarrik lortuko dugu bere burua zaintzen duen jendartea, non denok merezitako atsedenez gozatu ahal izango dugun, edozein dela ere gure generoa, jatorria, egoera soziala edo ekonomikoa.

HARA ZER DIEN

Gure kontsumoa, gure ardura

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUA

Oporrak, uda, eta herriko jaiak direla eta, guztiok gehiago irteko ohitura dugu, eta horrek kontsumitzeko aukera gehiagoren aurrean jartzen gaitu. Horregatik, drogak eta horien erabilerrari buruz hausnarketa egiteko momentu aproposa da.

Jaietan eta festa giroan alkohola kontsumitu behar dela sozializatzen ari gara eta horrek bere arriskua du, gehienbat normalizatu ditugulako kontsumo guztiak, baita nerabeek egiten duten kontsumoa ere. Garrantzitsua da ideia horri buruz hausnartzea, eta, are gehiago, kontuan hartzen badugu, Estatuan kontsumoie eta gazteei buruz egin diren azken azterketak, non Nafarroa Espainiako batez bestekoaren gainetik dagoen nerabeek eta gazteek egiten duten alkohol kontsumoen aldetik.

Ondo pasatzeko modu asko daude, kontsumitu beharrik

gabe. Ezinbestekoa da gogoraraztea, askotan, helduok dugun kontsumitzeko modua edo ohiturak ikasgai direla txiki edo gazteendako. Eredu gara, nahi eta nahi ez, eta hausnartzeko garaia da zer nolako kontsumoak egiten ditugun beste aurrean, batez ere aurre aldean ditugun adin txikiak baldin badira.

Aldi berean, ez dugu ahaztu behar kontsumo guztiak arriskuak dituztela, eta, hala eta guztiz, kontsumitza erabakitzen bada, arduraz egitea, arriskuak ahalik eta gehien murrizteko.

Beti ere, gure kontsumoa gure ardura delako, kontuan izan beharko dugu kontsumoen inguruan hartzen ditugun erabakiek ondorioak dituztela. Horregatik osasungarria litzateke gaua planifikatzea, arriskuak murrizteko:

- Kontsumitu baduzu, autorik ez hartu.
- Alkohola edo beste drogaren bat hartu ondoren, beti da gidatzea arriskutsua.
- Ez igo kontsumitu duen norbaiten autoan. Zerbait gertatuz gero, ardura ez da bakarrik gidariena, autoan igotzea erabaki

dugunok ere badugu gure ardura eta erantzukizuna.

- Lagunak kontsumitu badu, ez utzi autoa hartzen.
- Lagunen artean adostu gidariak ez duela edango.
- Kontsumitu baduzu, Jaibus, taxi-jai, garraio publiko hartu eta etxera seguru itzuli. Jaibus adinez nagusiak direnen trafiko-istripuak prebenitzeko zerbitzua da.

Kontuan hartu festetan herri herri mugitzen garela horrek dakarren arriskuarekin.

Bide Segurtasunerako Europako Behatokiaren (ERSO) datuen arabera, Europako errepideko heriotza guztien %25 alkohol-kontsumoarekin lotuta daude.

Horregatik, Kontua ez da isunak saihestea, istripuak saihestea baizik.

Bideberrian, bizitzan bezala, denok gaude konektatuta, eta norberak egiten duen eragina izan dezake besteengan; beraz, jaietan lagunekin gaudenean geure burua zaindu eta, aldi berean, elkar zaindu.

Eta uda honetan denok goza dezagun, "Zaindu gaitzen jaietan eta zaindu ditzagun jaiak!"



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Udako txokoak

Irakurtzea gustatzen bazaizu, edozein une eta leku dira onak horretarako. Udaberriak utzitako koloreak eta eguraldi onak eskaintzen dizkigun txoko zoragarri horiek oso aproposak dira liburutegiko liburu bat hartu eta gustura egoteko. Horregatik, hementxe zenbait gomendio eta txoko:

- **Isildutako eskuak.** Liburu hau oso aproposa da etxe ondoko lorategi bateko zuhaizpean irakurtzeko. Emakume langileek gerraondoko Euskal Herrian izan zuten lekua ederki deskribatzen digu Joan Abril Olaetxeak. Lodosako kontserberak eta Ondarroako arrain-kontserba fabrikako langile emakumeak lotzen ditu istorio batean eta zein garrantzitsuak izan ziren nabarmentzen du. "Enara" izeneko espargingileak, Atarrabiako

paper-fabrikako emakumeak eta beste hainbeste emakume garai hartan Euskal Herrian izugarriko lana egin zuten, herria, eta aldi berean, familia aurrera ateratzeko. Liburuak ongi azaltzen digu urte horietako Euskal Herria oso, denboraren-makinarekin atzera egitea bezala sentiarazten zaitu. Polita eta interesgarria. Historia gustatzen bazaizu, gomendagarria da zuretzat.

- **Printzak begietan.** Iratxe Ormatza Imatz idazleak sortutako liburua da.

Igerilekuko gerizpean irakurtzeko aproposa da. Oraingoan ere, emakumeak dira erabateko protagonistak. XX. mendean izandako aldaketak oso ongi deskribatzen dizkigu idazleak hamar ipuinetan. Ipuin bakoitzak emakume baten bizipenak kontatzen dizkigu, eta oso ongi islatzen du garai hartako testuingurua. Betiko bidegabekeriak, pobrezia, emakumeen zapalkuntza, eta beste hainbat injustizia, aldaketa bortitzekin nahasten

dira Bilboko kaleetan. Garai hartako giro kultural, sozial eta politikoa oso ongi irudikatzen du Ormatzak.

ZUZENKETA

Aurreko zenbakian, 12. orrialdean, festen egitarauen berri eman genuen. Okertu, eta Unanun beharrean, festak Dorraon zirela jarri genuen. Asteburuan Unanun ospatu dituzte San Pedroren omenezko festak. Sortutako nahasmenagatik, barkamena.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
Iñaki Rubio Mendoza
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Rafael Carasatorre Vidaurreren liburuen erakusketa Etxarri Aranazko plazan.

Carasatorreren liburu berria

Ikerlari etxarriarrak 'Cuentos, casas y padrones' liburua argitaratu du. Izenburuak agerian uzten duenez, hiru atal ditu liburuak: 30 bat ipuin, Irañeta eta Etxarri Aranatz arteko herrietako etheen izenak eta Etxarriko 1880, 1920 eta 1935eko erroldak

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Rafael Carasatorre Vidaurre ikerlari etxarriarrak liburua argitaratu zuen maiatzean: *Cuentos, casas y padrones* (egilearen edizioa). Izenburuak berak adierazten du idazlanak zein hiru atal dituen. Egileak argitu duenez, "liburuak, alde batetik, irudimeneren edo entretenigarria den atala du; bestetik, ikerketarena; eta, azkenik, ekarpen soziala egiten duena eta erabilgarria dena".

Ez da aurreneko aldia Carasatorrek ipuingintza lantzen duena. Aspaldi *Cuentos Verdaderos de Etxarri Aranatz* (egilearen edizioa) argitaratu zuen. Argitalpen berrian genero horri heldu dio atzera ere etxarriarrak. "Baina orduko hartan dozena bat ipuin bazeuden, oraingo honetan hamabi ipuin haiek zuzenduta eta beste ba-

tzuk gehitu ditut. Guztira, hogeita hamar daude", zehaztu du etxarriarrak. Carasatorrek azaldu duenez, "ipuin helburua entretenitzea da. Irakurlea jabetu dadila nola bizi ziren garai batean hemen. Horregatik, daude garaiari buruzko aipamenenak. Ipuinek bizitzaren hainbat aspektu islatzen dituzte, zein pentsamolde zuten bertakoek". Etxarriarrak gaineratu duenez, "literatura asmoak baztertu ditut, eta era klasikoan idatzi ditut ipuinak, bizitza lezio bat, irakaspen bat jasotzen dute".

"LIBURUAK ATAL ENTRETENIGARRIA DU, IKERKETARENA ETA, AZKENIK, EKARPEN SOZIALARENA"

Liburuko lehen atalaren irakurketari ekiten dionak opatuko ditu, besteak beste, mitologia pertsonaiei lotutako ipuinak, jan-edanaren ingurukoak, gerraren edo mandazainen ibileren oihartzuna dutenak, altxorrek, apaizak eta bestelako pertsonaiak dituzten ipuinak.

Lehen atal horren aurretik bere iloba baten alabak egindako marrazki batzuk daude. "Zortzi urte ere ez zituen egin zituenean. Nik berari ipuinak irakurri eta ondoren entzundakoaren inguruan marraztu zituen marrazki horiek". Ipuinen artean, tarteka, iruditxo batzuk ere ageri dira batean eta bestean sakabanatuta. Garai batean hausterre egunetik Trinitate egunera apaizek banatzen zituzten txartelak dira, eta haren jabeak erlijio bete beharrek eginak zituela bermatzen zuten.

Etxe izenak

Argitalpenaren bigarren zatian Carasatorrek Irañeta, Uharteko Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Dorrao, Lizarraga, Lizarragabengoa eta Etxarri Aranazko etheen izenak jaso ditu ere. Atal horren inguruan egileak adierazi duenez, "izen guztiek bere diakronia, beren bilakaera historikoa, dute. Ez badakigu izenaren esanahia zer den, zarata bat besterik ez dugu. Eta esanahia ez badakigu artxiboan opatu behar da. Esaterako, Arbizuko Libikontxa Liberalikoren etxea da. Edo, herri berean, Ixelania Isabeleneko".

Egileak aitortu du zaila dela etxe batzuen izenaren esanahia zein den jakitea. Baina etxe izenen osaketan abizenen osakerako antzeko elementuak daudela irakur daiteke liburuan: espazioaren ezaugarriak, istripuak edo suteak, etxearen lanbidea, jatorria, burutazioa, tradizioak eta izen txikiak edo horien eta bestelako elementuen batura. "Bestetik, lehen Santa Marina ermitara herri askotatik joaten zen jendea. Edo Lakuntzako Aldabara Aranazko Elkartekoak ere joaten ziren. Horiek galtzean, hizkuntza komunikazioa galtzen da eta kontrakzioak hasten dira", azaldu du.

Azkeneko atalak, berriz, Etxarri Aranazko 1880, 1920 eta 1935 urteetako errolda jasotzen du. Haietan herrian bizi ziren etxarriar guztien berri ematen du izen-abizenekin. Gainera, haien jaiotze data, jatorria, ezkontuta edo ezkongabe zegoen lanbidea, herrian bizitzen zezan denbora eta bizilaguna zen edo ez.

Kezkak

Etxarriarraren iritziz, "ekonomia eta kultur arloko krisia ere gurrera iritsi da". Horregatik, "zaila" ikusten du ipuin gehiago argitaratzea. "Lehen 250 ale ateratzen nituen eta goiz batean saltzen ziren. Gaur egun, ez. Aldaketa dago". Ipuinak argitaratuz, "irakurketa berraktibatuta" nahi izan du, "irakurketarik gabe kulturarik ez baitago. Eta kulturarik gabe ezin da aurrera

"BILAKAERA DUTE ETXE IZEN GUZTIEK. ESANAHIRIK GABE ZARATA BESTERIK EZ DIRA"

egin. Sustatu beharra dago besteak kulturaz jabetzea. Irakurketaren ahaleginik gabe ez dago ezer". Gazteekin kezka duelako, liburua haiei zuzenduta dagoela azaldu du. "Ezer irakurtzen ez badute galdu egiten dute. Maniagarriak bihurtzen gara", gaineratu du.

Carasatorrek aitortu duenez, "nire benetako kultur ekarpena *Textos Históricos Navarros* (<https://labureus/FI51L>) blogaren bidez egiten dut. 1.500 gai daude, 2.000 lan. Haietako batzuk oso luzeak. Egunero 1.500 bisita izaten ditu, eta 5.000 bisitako egunak izan ditu ere. Bai, jendeak halako blogak begiratzen ditu. Eta eskertuko nuke zerbait zuzendu beharko balitz, jakinaraztea".

Berredizioak

Aipatutako liburua argitaratzearekin batera, Carasatorrek *Etxarri Aranatz 1900-1940* liburua berrargitaratu du. "Agortua zegoen, eta jendeak eskatzen zuen", azaldu du. Liburu horretan herrian lau hamarkada horietan pasatutakoaren berri zehatza eman zuen ikerlariak. "Udalaren diru sarreren eta irteeren berri labor emana dago. Lan hori ere egin dut, baina beste ehun bat orrialde lirerateke eta, berez lodia den liburua, ez litzateke erabil erraza izan".

Maiatza akabera eta garagarriaren hasierako igandean bere lagun batzuek liburua Etxarri Aranazko plazan salgai jarri eta gero, aipatutako bi liburua Etxarri Aranazko Kaxeta eta Altsasuko Arkatz liburu dendetan salgai daude. Berrargitalpena 35 eurotan eskuratu daiteke; eta argitalpen berria, 15 eurotan. Egileak aitortu duenez, "dirulaguntzarik ez dut izan; izan banu liburua merkeago lirerateke. Diru ahalegin handia egin du lanok argitaratzeko. Zaila izan da jarritakoa berreskuratzea. Kultur ekarpena dira".

Azkenik, etxarriarrak jakinarazi duenez, "*Barranca-Burunda* (1993, egilearen edizioa) liburua berrargitalpena prestatzen ari naiz orain, urte akaberarako argitaratuko dut. Eduki bikoitza izanen du. Asmoa da parte grafikoa ateratzea eta haurrendako 200 kromoko bilduma bat gehigarri izatea". Liburu hori Sakana ulertzeko ezinbesteko erreferentzia da.

Arbizuk Olatzea hotela errentan eman nahi du

Landa hotelaren kudeaketa hartu nahi dutenek hilaren 14ra arte aurkez ditzakete eskaintzak, Arbizuko udaletxean. Zahartze aktiborako Bertan proiektu berritzailea martxan jarri nahi zen, baina hotela cohousing bihurtzeko baldintzarik ez da izan

ARBIZU

Arbizuko errota 1911n jaso zen, eta 50eko hamarkadara arte irina egiteko eta elektrizitatea sortzeko erabili zuten. Eraikina udalarena izatera pasa zen 60ko hamarkadan, eta 2008an Olatzea landa hotel bihurtu zen. Zenbait urte itxita egon ondoren, orain, Arbizuko Udalak eraikina hotel gisa kudeatzeko deialdia egin du. Horretan interesa duenak bere eskaintza udaletxean aurkez dezake. Epea hilaren 14an desedituko da. Udalak 21.000 euro eskatzen ditu. Olatzea landa hotelak 11 logela ditu 1. eta 2. solairuetan banatuta, egongela beheko solairuan, apartamentua eta jangela beheko solairuan (40 lagunendako edukiera), jantokia sotoko solairuan (60 lagunendako edukiera), zereal errota eta turbina erakusteko gunea, eta zerbitzu gela.

Sakanak, Iparraldeko, Euskadiko eta Nafarroako beste erakunde batzuekin batera, Europatik Bertan proiektua garatzeko 761.124 euroko dirulaguntza jaso zuen 2019an. Haren helburua zen "mugaz gaindiko landa guneetako eskualdeen zahartze aktibo eta osasungarri baterako soluzio berritzaileen diseinatzea eta implementatzea". Egitasmo pilotuen artean zegoen Olatzea eraikinean cohousing edo komunitate etxebizitza sortzea. Baina Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, "urteetako ahaleginaren ondotik, etorkizuna bermatuko duen dirulaguntza publikoaren faltan, ezin izanen dela martxan jarri". Udalak gaineratu duenez, "beste proiektu sozial publiko eta egingarri bat posible egiten den bitartean, alokatu eginen dugu, kudeaketa pribaturako".

Proiektuaz

Egitasmoan lan egin duten eragileetako bat Sakanako Garapen Agentzia (SGA) izan da. Bertako kudeatzaile Iker Manterola Ma-



Olatzea eraikina hotel gisa zabaldu nahi du udalak. ARTXIBOIA

"HELBURUAK BESTE EGITASMO BATZUEN BIDEZ LANTZEKO KONPROMISOA ADIERAZTEN DUGU"

txainek azaldu duenez, "ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzu Mankomunitateek egindako azterketa batetik abiatuta, Sakanan zahartze aktiboa sustatzeko beharra agerian geratu zen". Behar horri erantzun nahirik, Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunitateak eta SGA, besteak beste, beste eskualdetako eragileekin batera, Bertan POCTEFA elkarlan proiektua ondu zuten.

Esan bezala, proiektuaren baitan Olatzea zegoen. Manterolak zehaztu duenez, "Olatzean adinekoei zuzendutako etxebizitza partekatuta zerbitzua abian jartzearen bideragarritasuna aztertu zen". Eta, horretan oinarrituta, ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, SGAK, Arbizuko Udalak eta Josefina Arregi klinikaren fundazioak lantaldea osatu zuten. "Hainbat pauso eta

lanketa egin ondoren, adinekoei etxebizitza partekatuta zerbitzua martxan jartzeko aukera zegoela ikusi genuen, baina hari jarraipena emateko baldintzak ez zeuden argi. Horregatik, egitasmoa ez abiaraztea, gelditzea, erabaki dugu, egoera nola garatzen den ikusiko dugu". Manterolak gaineratu duenez, "Sakanan zahartze aktiboaren arloko beharren jakitun eta orain arteko konpromisoa mantenduz, hasierako helburuak beste egitasmo batzuen bidez lantzeko konpromisoa adierazten dugu".

Nasuvinsaren bilatzailean 9 industria partzela salgai

Lursail, nabe, higiezin eta bulegoetako buruzko informazio tekniko eta grafiko osoa kontsultatzeko aukera dago

SAKANA

Nasuvinsak www.nasuvinsa.es/industrial webgunean tresna berria jarri du. Haren bidez, enpresa publikoak Nafarroan salgai edo alokatzeko dituen erabilera industrialeko, logistikoko edo erabilera anitzeko ondarea jaso du. Informazio teknikoarekin batera, irudiak ere badaude. Internet bidezko eskaintza hori eskaera eta behar espezifikoetara erantzuteko pentsatuta dago; alde batetik, inguruko eta nazioarteko merkatuko ekonomia jarduerena eta, bestetik, enpresa eta profesionalena.

Online bilatzaileak Nasuvinsaren jabetza bakoitzaren tipologiari, kokapenari, azalerari eta erabilerrari buruzko informazio osoa eskaintzen du. Gainera, erreferentzia interesgarriak eskaintzen ditu, hala nola oinarritzko azpiegituren hurbiltasuna edo komunikazio bideetarako sarbidea. Eskaintzaren berri zabalago emateko, besteak beste, bilatzaileak aire argazkiak edota bideoak eskaintzen ditu.

Sakana

Bilatzaile horretan Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoaren berrehunen bat erreferentzia daude, erkidego guztian barna barreiatuta dauden 25 ekonomia jarduera eremuatan. Haietako bederatzi erreferentzia ageri dira. Guztiak industria eremuak dira, eta denak salgai daude (prezioak BEZik gabekoak dira). Hasteko, Arakilgo Udalak Irur-

tzungo Erabidea industrialde ondoan duen 17.183 m² azalera bat du salgai. Haren gehienezko okupazioa 14.215 m² eta eraikigarriak 5.754 m² dira, 10 metro altuera mugarekin. Lursaila 1.030.992 eurotan dago salgai.

Etxarrengo Ardantzeta industrialdean Nasuvinsak hiru partzela ditu salgai. Bat zenbakidunak 49.626 m² azalera du eta haietatik gehienez 29.776 m² okupatu daitezke. Hain 32.257 m² eraiki daitezke. 2.977.560 eurotan dago salgai. Hiru zenbakidun partzelak 72.324 m² azalera du, haietatik gehienez 43.394 m² okupatu daitezke eta 47.011 m² eraiki daitezke. 4.339.440 euro balio ditu. Azkenik, 84.555 m² azalera duen 4 zenbakidun partzela dago. Gehienez 50.733 m² okupatu daitezke eta eraiki 54.961 m². Hark 5.073.300 euro balio ditu. Hiru eretan eraikinek har dezaketen altuera Nasuvinsari galdetu behar zaio. Arakilgo bi industrialdeak garatu gabe daude, eta garapen falta horregatik udala kexu da.

Azken bost partzelak Txunkai industrialdean daude, Altsasuko Kooperatibaren aldamenean. Bat partzelak 1.900 m² azalera du eta 200.572 euroko prezioa. Bi zenbakidun partzelaren azalera 1.225 m²-koa da eta 98.000 euro balio ditu. 2.3 partzelak 985 m²-ko azalera du eta 78.800 euroko balioa. Hiru partzelaren azalera 1.982 m²-koa da eta 158.560 euroko kostua du. Azkenik, 4 partzelak 1.473 m²-ko azalera eta 117.840 euroko balioa du.

Txalaparta
TABERNA

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

PORTUKO

Oporretan zure gosaria hemen!

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Arangat:
948 460 988

Sanferminetara joan zen ibiltariarena

Duela 99 urte ere Iruñeak bere festak, sanferminak, ospatu zituen. Garaiko egunkari batek jaso zuenez, etxarriar bat herritik hiriburuko festetara oinez joan zen. Berezitasuna da gizonezkoak 86 urte zituela

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Santos Lasa Ceberioaren balentriaren berri *La Voz de Navarra* egunkariak eman zuen 1924ko garilaren 13ko, igandeko, zenbakiko azalean. *Cross-country* edo landan zehar izenburua zuen argazki albistea da jaso zuena. Irudian adineko gizonezkoa ageri da, txapela ezker aldera jantzia, atorra iluna eta abarkak jantzita. Atzean, eserleku eta mahai luzea eta leihoa ikusten dira. Gaztelu plazako Zaragueta estudioko sinadura du argazkiak. Ziurrenik, Gerardo Zaragueta Zabalok egina da argazkia.

Argazki oinean honakoa irakurtzen da: "Hona hemen sendotasun tinkoko eta ausardia beldurgabeko bordari bat. Santos Lasa da. Etxarri Aranazkoa. Goikola baserrian bizi da. Laurogeita sei urte ditu. Festetako egunetako batean bere herritik Iruñeraino oinez etorri zen. Etxarri Aranaztik goizaldeko ordu bietan abiatu zen, eta Iruñe-

ra goizeko bederatzietan iritsi zen. Berrogei kilometroko ibilbidea da; beraz, orduko sei kilometro egin ditu. Beraien artean bordari bikain hau izateaz barranquesek harro egon behar dute, laurogeita sei urterekin Iruñera oinez etortzeko ausardia duena. Hau da Santos Lasa, Goikolakoa, on eta sendoa, txapela alde batera, esanahian: zerbaitetatik naiz Barrancakoa".

Hainbat datu

Argazki albiste horren protagonista Santos Lasa Ceberio da. Etxarri Aranazko 1920ko erroldaren arabera, Ataungo Aia uzoan jaio zen (1834ko azaroaren 7an) eta 21 urte zeramatzen he-

"ETXARRITIK GOIZEKO ORDU BIETAN ABIATU ZEN, ETA IRUÑERA BEDERATZIE TAN IRITSI ZEN"

rrian bizitzen. Hau da, 1899tik Goikolan bizi zen. Ordurako, Etxarri Aranazko biztanle zen. 1934ko apirilaren 26an hil zen bere etxean, Etxarri Aranazten. Santos Felipe Lasa Ceberio eta Ignacia Begiristain Agirrerekin bizi zen. Ordurako bikoteak sei seme-alaba zituen. Gerora, jaioko zirenen artean Serafin zegoen.

Erroldako jaiotze dataren arabera, Santosek 1924an 90 urte izanen lituzke, egunkarian argitaratutakoa baino lau gehiago. Gainera, Goikolan bizi zen, Lizarrustirako bidean, Elkorri errekararen ertzean zegoen baserri batean (garaiko ola bat). Pentsatzekoa da, beraz, Iruñera joateko etxetik Etxarri Aranaztera beharrezan Lizarragabengoarantz eta Arbizurantz joko zuela, bidea motzagoa egiteko. Beraz, zazpi ordutan 43 km ibiliko zituen Santosek egun hartan. Konparazio bat. Parisek Olinpiar Jokoak hartu zituen 1924an. Maratoi probaren irabazleak, Albin Sten-

roos finlandiarrak, 35 urterekin 42.195 metroak egiteko 2 ordu 41 minutu 22 segundo 6 ehuneneko behar izan zituen. Etxarriarrak 6,14 kilometro orduko egin zituen bere ibilaldian, finlandiarrak lasterka, berriz, 15,62. Etxarriarrak 55 urte gehiago zituen. Ez dakigu nola bueltatu zen, edo halako gehiago egin zituen.

Protagonista

Azken horren alaba da Inaxi Lasa Razkin. Hau da, bere aitona Felipe eta Santos anaiak ziren. Inaxi 1965era arte, 12 urte zituen arte, Goikolan bizi izan zen. Aitari entzunda daki Santosen ibilera horren berri, "baina gutxi gehiago. Badakit egunkarian atera zela eta argazkia etxean izan genuela". Parean izan ez arren, Inaxik ongi gogoan du Santosen *La Voz de Navarra* argazkia: "garai bateko azienda tratularien blusa beltz handia du, makila eskuetan eta oinetan abarkak".

Itxura horregatik Inaxiren susmoa da Santos sanferminetako ganadu azokara etorriko zela. *El Pueblo Navarro* egunkariak jakinarazi zuenez, 1924an, garilaren 09, asteazkenarekin,

"BORDARI BIKAIN HAU IZATEAZ BARRANQUESEK HARRO EGON BEHAR DUTE"



Santos Lasa Ceberio. LA VOZ DE NAVARRA

hasi eta 13an, igandearrekin, despeditu zen ganadu feria. Murtzia eta Valentziako tratulariak etorri ziren. Aurreneko bi egunetan zaldi azienda izan zen gehienbat azokan, eta ondorengo egunetan behi azienda.

DUELA 25 URTE...



Euskararen asteburua Irañetan

Irañetako Artxabal euskara taldeak antolatu zuen euskararen aldeko asteburua. Arrakasta izugarria izan zuen ekimenak. Hasteko, ostiralean, Leitzan egindako film bat ikusi zuten, eta filmeko aktoreen azalpenak entzun zituzten. Festa eguna larunbata izan zen. Egitarauan krosa, musika, barra, auzatea eta beste izan ziren. Festen pareko giroa sortu zen. Despeditzeko, igandean, plazan hiru erakusketa ikusgai izan ziren, eta herri bazkaria izan zen.



UTZITAKOA

Rosariok ehun urte bete ditu

Hilaren aurreneko egunean Rosario Imaz Otxagabiak etxarriarrak ehun urte bete zituen. Hori dela eta, Etxarri Aranazko Udalak, familiaren bidez, herriko armaria duen ttattarra, bere jaiotze agiriaren kopia eta udal batza guztiaren zorion gutuna bidali zizkion.

Rosario Arguedasen bizi da gaur egun, Euskalerriari frontoiko lanetara etorritako gizonezko batekin maitemindu zen Rosario. Eta Arguedasera bizitzera joan zen. Urtebetetzea familia topaketa bihurtu zen, eta bazkari ederrarekin ospatu zuten.



Aitor Carrillo Pérez Historiako eta Ondareko Gradu ikasleak egin du ikerketa. NUP

Trenbideetako langileek jasan zuten garbiketa ikertzen hasi dira

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle batek Tuterako eta Sakanako tren geltokietako langileek jasandako garbiketa ikertu du. Etorkizuneko azterketa kuantitatibo eta konparatiboetarako abiapuntua izan liteke Nafarroan eta estatuan

SAKANA
Aitor Carrillo Perezek *La depuración del personal ferroviario durante la Guerra Civil y el franquismo: una primera aproximación a partir de la comparación entre Tudela y el valle de la Sakana (Navarra)* ikerketa lana egin du (*labur.eus/BxRA8*). Historiako eta Ondareko Gradu ikaslea, lankidetzeta-beka bati esker, Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtseko taldearekin batera aritu da lanean. Izan ere, errepresio ekonomikoaren eta soziolaboralaren beste alderdi batzuekin gertatu den bezala, depurazio profesionalak aztergai izan dira hainbat ikerketatan, azkeneko mende laurdenean errepresio frankistaren analisiaren inguruan gertatutako berrikuntzaren ondorioz. Halere, trenbideko enpresen langileen depurazioak, zehazki Nafarroan

egoitza zutenak, azterlan monografikorik ia ez du izan. Carrillok lan horren bidez, oso errealitate desberdinak bizi izan zituzten Tuteran eta Sakanan trenbideko langileek jasan zituzten garbiketak ikertzea eta konparatzea izan da Carrilloren helburua, bere ikerlanaren bidez.

Lanean gogora ekarri du nola, gerran eta gerra ondoren, hau da, 1936. eta 1942. urteen artean, "enpresa publikoetako edo zerbitzu publikoen kontzesionarioetako (trenbidea, esaterako) funtzionario eta langile guztiei garbiketa espedienteak ireki

**SAKANAN
TRENBIDEKO 262
LANGILE ZEUDEN; 240
GIZONEZKO ETA 22
EMAKUMEZKO**

zizkietela enpresek eta agintariak, gerra hasi aurretik, gerran zehar eta gerraren ondoren beren lanbidea, ideologia, militantzia eta portaera zein ziren ikertzeko". Horren arabera, berriz hartu zituzten (zigorrek edo zigorrarekin gabe) edo kaleratu egin zituzten.

Nolanahi ere, ikertzaileak uste du "trenbideko langileen garbiketa ez dela behar adina garatutako ikerketa ildoan izan, behintzat beste profesional batzuek jasandako bestelako garbiketekin alderatuta". Lana Nafarroako Unibertsitate Publikoaren *Memoria Paperak* gordailuan argitaratu da. Txosten luze horrek zabalitzen du gerraurreko Nafarroako egoera sozial eta politikoaren errepaso labur bat, profesionalak jasandako garbiketa horien legezko oinarria azaltzen baitu. Tuterako eta

Sakanako geltokietako garbiketa espedienteak ere aztertzen ditu, besteak beste, galdera honi erantzuten saiatzeko: langileen militantzia ezagunak eraginik izan ote zuen langileek jasandako lan zigorretan.

Ibarrak

Estatu kolpea eman zuten agintariak abian jarri zuten moralak, ekonomikoa eta kulturala, gizartea menderatzeko eta garaiak umiliatzeko tresna horri eusteko baliabideak etengabe zabalduz. Jakina denez, errepresio handiagoa Frente Popularrak babes handiagoa zuen herrietan izan zen, ibarrean Altsasun eta Olatzagutian, industria gehien zuten herrietan. Hala ere, Altsasu ikerketatik kanpo utzi du.

Txostenean jaso duenez, Sakanan trenbideko 262 langile zeuden, horrela banatuta: Izurdiagan 1, Irurtzunen 14, Etxarrenen 6, Hiriberri Arakilen 1, Ihabarren 1, Irañetan 4, Uharte Arakilen 8, Lakuntzan 2, Arruzun 1, Arbizun 3, Lizarragabengoan 4, Etxarri Aranatzan 10, Bakaikun 3, Iturmendin 3, Altsasun 178 eta Olatzagutian 20. Arakil eta Iturmendi arteko geltokietan 52 gizonezko eta 12 emakumezko lan egiten zuten, Altsasun 172 gizonezko eta 6 emakumezko eta Olatzagutian 16 gizonezko eta 4 emakumezko. Irañeta zen salbuespena bina gizonezko eta emakumezko lan egiten zutelako.

Errepresioa

Ikerlariak azaldu duenez, ibarreko trenbideetako langile gehienak berronartuak izan ziren, zigorrarekin gabe. Zigortuen berri ere eman du. Irurtzungo langile bat zigorrik gabe birsartu zuten enpresan. Altsasun 85 langile zigorrarekin gabe berronartuak izan ziren, 3 zigorrarekin berronartuak izan ziren eta 48 behin betiko kaleratuak izan ziren. Olatzagutian, berriz, 9 langile zigorrarekin gabe berronartuak, 6 zigorrarekin birsartu zituzten, 4 zigorrarekin birsartu zituzten eta bat betirako lanetik baztertua gelditu zen.

**BERRONARTUTAKOAK
157 IZAN ZIREN, 3
ZIGORRAREKIN, 11
BIRSARTUAK ETA 49
KALERATUAK**

Guztira, zigorrarekin gabe berronartutako 157 langile izan ziren, 3 zigorrarekin berronartuak, 11 zigorrarekin gabe birsartuak eta 49 kaleratuak.

Carrillok azaldu duenez, trenbideko langileen artean militantzia politiko sindikala %15-20 artekoa zen. Arakil eta Iturmendi arteko 64 langileetatik gutxienez 10ek militantzia politiko edo sindikal ezaguna zuten: PRR 1, PSOE 3, UGT 2, CNT 1, EAJ 3.

Olatzagutian, berriz, 20tik 3: UGT 1, JJSS 1, CNT 1. Horiek errepresioa jasan zuten, baita militantzia ezagunak ez zutenek ere. Sakanan aztertutako militantzia ezagunak gabeko 71 langileetatik 6k, %8,45ek, errepresio ekintzak jasan zituzten, eta horietatik bik, %2,82k, lan zigorrak jasan zituzten. Aldiz, Sakanan osoko 13 langile militanteetatik 8k, %61,54k, errepresio ekintzak jasan zituzten, ezagutzen den militanziarik gabeko langileena baino 7,4 aldiz handiagoa. Horietatik bik, %15,38k, lan zigorrak jaso zituzten, ezagutzen den militanziarik gabeko langileak baino 5,5 aldiz gehiagok. Datu horiek Arakil eta Iturmendi artekoen eta Olatzagutiaren artean banatuz gero, Arakil eta Iturmendi arteko aztertutako militantzia ezagunak gabeko 54 langileetatik 2k, %3,7k, gertakari errepresiboak jasan zituzten, eta horietako inork ez zuen lan zigorrarekin jasan. Aldiz, Sakanako militantzia ezaguneko 10 langileetatik 5ek, erdiak eta, proportzioan, militantzia ezagunak gabeko langileek baino 13,5 aldiz gehiagok, gertaera errepresiboak jasan zituzten, nahiz eta hemen inork ez zuen lan zigorrarekin jasan. Era berean, Olatzagutian aztertutako militantzia ezagunak gabeko 17 langileetatik 4k (%23,52) gertakari errepresiboak jasan zituzten, eta horietatik bik (%11,76) lan zigorrak jasan zituzten. Militantzia ezaguna zuten 3 langileek gertakari errepresiboak eta lan zigorrak jasan zituzten, hurrenez hurren, militantzia ezagunak gabeko langileek baino 4,5 eta 8,5 aldiz gehiagok.

Arakil eta Olatzagutia artean, Altsasu salbu, errepresio txostenak egin zituztenak izan ziren: enpresak (79), Guardia Civil (77), alkateak (7; 3 aldeko, 2 Olatzagutian, eta 4 kontrako, denak Olatzagutian) eta Falange (6; aldeko 5 eta kontrako 1).

FESTAK

AGENDA

ITURMENDI

FESTAK

UZTAILAK 14 ostirala

XIMONENA GAZTETXEAK ANTOLATUTA

10:30 Haurrendako jolasak,

12:00 Txupinazoa.

19:00 Mozkor jolasak.

20:00 Auzatea.

22:00 Afaría

00:00 Kontzertuak: Deserrite,

Muga Zero eta DJ Morti.

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

ZIORDIA Kontzertu akustikoa.

Iñigo Garrido Music 'Garry' musikariaren rock, blues, soul eta country kontzertu akustikoa.

20:00etan, *Etxaleku tabernan.*

ASTELEHENA 10

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea, Sakanako Pentsiodunen Mugimenduak deituta. Ikasturteko azken kontzentrazioa.

12:00etan, *udaletxearen aurrean.*

LAKUNTZA Ur festa goxoa.

Gozamenez programaren *Ur festa goxoa*. Gaueko bainua, afaría eta txokolatzeko iturria. 12 urtetik gorako gazteendako.

20:30etik *aurrera, igerilekuetan.*

ASTEARTEA 11

IRURTZUN Ur festa goxoa.

Gozamenez programaren *Ur festa goxoa*. Gaueko bainua eta txokolatzeko iturria. 12 urtetik 25 urte bitartekoendako.

20:30etik 23:00etara, *igerilekuetan.*

ASTEAZKENA 12

ALTSASU Ur festa goxoa.

Gozamenez programaren *Ur festa goxoa*. 12 urtetik gorako gazteendako.

Dantzaleku igerilekuetan.

20:30 Aurkezpena.

20:30-23:30 Bainua eta ur jokoak.

21:30 Bokata eta alkoholik gabeko edariak.

4 eurotan.

23:00 *Bihotz, bi hots, bi txotx* ikuskizuna, antzerki bakarrizketa musikatua.

23:30 Txokolate iturria.

OSTEGUNA 13

ETXARRI ARANATZ Ur festa goxoa.



IRURTZUN Ricardo Azkargorta artistaren *Bertatik Bertara* margolan erakusketa.

Uztailaren 18ra arte. *Pikuxarren.*

Gozamenez programaren *Ur festa goxoa*. Gaueko bainuak, bokata eta alkoholik gabeko edari afaría, musika eta txokolatzeko iturria. 12 urtetik gorako gazteendako.

21:00etatik *aurrera, igerilekuetan.*

Eztanda txarangaren emanaldia.

20:00etan, *Etxaleku tabernan.*

IRURTZUN Opera.

Turandot operaren zuzeneko emisioa Madrilgo Errege Antzokitik.

20:45ean, *kultur etxean.*

OSTIRALA 14

ZIORDIA Emanaldia.

ZORION AGURRAK



Markel Castro
Zorionak Markel!!! Ia 10 urte bete ttuzu eta mutiko arduratsubet einik zaude, ikasketak gogos landu ttuzu, segi segi hola! Iyendien elkarrekin ospatuko degu. Zu famelikuek



Rosario Maiz Navarro
Zorionak izeba Rosario. maitasunez, Maiz/Otxagabiaren familiaren partes.



EZ IZAN BURUGOGORRA!
ZORIONDU MAITE DUZUN HORI
zorion@guaixe.eus




EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus

107.3 FM
beleixe

Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta *officea* ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

IKASTAROA

Altsasu mugitzen da adinduendako kirol eskaintza: Irailaren 25ean hasiko diren bi ikastaroetan izena emateko epea uztailearen 10etik 19ra izango da. 70 urtetik gorakoentzat bi eskaintza daude; bata, mojen gimnasioan ariketa fisikoarena astelehen eta asteazkenetan, 10:00-11:15 edo 11:30-12:45 orduetegian, bestea Zelandiko igerilekuan, astelehen eta ostiralean 12:30-13:30 orduetegian. Informazio gehiago eta izen emateak 948 012 012, 948 468 343 edo 948 467 662 telefonoetara deituz edo aurrez aurre Zelandi kiroldegian. Errentaren arabera ordaindu beharko da ikastaroan parte hartzeagatik, informazio gehiago www.altsasu.net web orrian.

OHARRAK

Etxarri Aranazko jaietan haurrei zapi banaketa: 2022. urtean jaiotako Etxarri Aranazten erroldatuta ez dauden haurrek jaietako larunbatean egingo den ekitaldian zapi jaso nahi badute udaletxeko bulegoan izena eman beharko dute eta zapiaren kostua ordaindu, 5 euro, uztailearen 21a baino lehen.

Etxarri Aranazko jaietan zehaztasunak eta buruhandiak eramateko eskaintza: Zehaztasunak eramateko adin nagusikoa izan behar da eta buruhandiak 12 urtetik gorakoak. Interesa dutenek uztailearen 20a baino lehen udaletxean izena eman dezakete.

Etxarri Aranazko festetako jubilatuen bazkarirako txartelak: Etxarri Aranazten erroldatuta eta 65 urtetik gorakoak dohainik joan daitezke bazkaltzera, baina, derri-

gorrezkoa da txartela eskuratzea, horretarako udaletxean jaso behar da txartela uztailearen 19a baino lehen, 10:00etatik 14:00etarako orduetegian. Erroldaduta ez daudenek 26,50 euroren truke har dezakete bazkarirako txartela. Bazkaria agorriaren 2an, Aittun-amiñan egunean egingo da.

Lakuntzako festetako kartel lehiaketan botoa eman: Kartelak piszinako tabernan ikusgai daude. Botoa emateko epea uztailearen 14ra arte luzatu da.

Lakuntzako jaietan haurrei zapi banaketa: 2022an jaiotako eta Lakuntzan erroldatuta ez dauden haurrek jaietan zapi jaso nahi badute udaletxean izena eman behar dute uztailearen 21a baino lehen.

Olatziko festetan haurrek zapi jasotzeko izen ematea zabali: 2022 urtean jaiotako haurrek jaietan zapi jaso nahi badute familiak udaletxean izena eman behar dute garilaren 10a baino lehen.

Udako Sakanako Mintzakerdi taldeak: Etxarri Aranazten astean behin, bazkalondoren Xapatero tabernan, Altsasun astean behin goizetan eta beste herrietan herriz herri (astero leku batean). Zatoz gurekin dohainik dal izena emateko whatsapp bidali 600 482 024 telefonora.

Aralar aingeruari haurrak aurkeztea: Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatu du. Uztailearen 23an, meza nagusiaren bukaeran Haurren aurkezpena egingo da irudiari musu emanez. Aldez aurretik izena ematen dutenek umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa jasoko dute. Horretarako, santutegiko sakristian edo dendan eman behar da izena edo basanoa.josemari@gmail.com helbidera idatziz.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikaziozko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte

hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Herri Urratsen elkartasun uholdean diru ekarpenak egiteko: Herri Urratsera joatea ezinezkoa egin bazitzaizun eta sostengua erakusteko aukera hauek dituzu; www.herrirrats.eus web orrian sartuta eta materiala erosit, Bizum bidez Dohaintzak egiteko atalera sartuz (herri urrats aurkitu eta dirua bidali) edo honako kontu korronte hauetan dirua sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197, ES98 2095 5045 8710 6117 7332.

Euskara hutsezko Udalekuek joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean iraun behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direnendako dirulaguntzak: 2022ko uztailearen 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak, C2 mailakoak barne. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailearen 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulu jartzeko duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK


• **Luar Ganuza Ayestaran**, ekainaren 28an Etxarri Aranazten

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.




EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 7




Larunbata, 8



Igandea, 9



Astelehena, 10



ESKELA

Nicolas Saldías San Miguel

Zure barre handia gure alaitasunaren argia



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

"Sasoi betean itzuli nahi nuen, ez erretiroa hartzeko"

DANIEL SALDISE XOTAKO JOKALARIA

ARETO FUTBOLA Xotak Dani Saldiseren itzulera berretsi du. Datozen bi denboralditan jokatu du, eta azken hiru urteetan ikasitakoa plazaratzeko prest agertu da

Iñaki Rubio Mendoza IRURTZUN

Ofiziala da. Osasuna Magna Xotara itzuliko da Dani Saldise, datozen bi denboraldietarako, gutxienez. 2020an utzi zuen talde berdea, erronka berrien bila. Movistar Interren hasi zen eta, bi denboraldi egin ostean, Mallorca Palma Futsal taldeak fitxatu zuen iragan urtean. Hamaka lorpen batu ditu irurtzundarrak bi talde horiekin; Espainiako Superkopa, Espainiako Kopa, Erregearen Kopa eta Championsa eskuratu ditu azken hiru urteetan. Taldea sendotu eta garaipenera gidatzeko helburua du.

Zergatik itzuli zara Xotara?

Faltan sentitzen nuen taldea, ostiralak Anaitasunan... etxe-koak. Oso berdea izan naiz txikitatik, eta sasoi betean itzuli nahi nuen, ez erretiroa hartzera. 28 urte beteko ditut aurki, sasoi sentitzen naiz, heldutasun fisiko zein mentalean. Uste dut talde ona dugula. Gazteak gara, gainera; eta lan polita egin dezakegu epe labur-ertainera.

Asko ikasi duzu kanpoan izan zaren urte horietan?

6 urte bailiran bizi izan ditut. Esperientzia ikaragarriak izan ditut, onerako eta txarrerako. Championsa irabaztea itzela izan zen, esaterako. Heldutasuna hartu eta



Saldise eta Hernandez, prentsaurreko batean. XOTA K.E.



Xotako Dani Saldise eta Asier Llamas, Magna enpresaren meategian. XOTA

kanpoan zer dagoen ezagutzeko balio izan dit; Xotan beste hainbeste lortzea espero dut.

Noiztik darabilzu etxera itzultzeko ideia?

Movistar Interren nagusitzea zen helburua, baina hainbat proiektu ateratzen ari dira. Buelta asko eman ditzake bizitzak. Mallorca Palma Futsal fitxatu ninduen ondoren. Jende zoragarria ezagutu dut. Taldea eta hiria ere zoragarriak... Joan den azaroan, ordea, herriminak hartu ninduen, eta ondorengo hilabeteetan indartu egin zen sentimendu hura. Proiektu politak nituen ortzi mugan, baina etxera itzuli nahi nuen.

Zer emanen diozu Xotari?

Minutuak irabazi beharko ditut, edozein jokalarik bezala, kontziente bainaiz maila handiko jokariak daudela. Dani Saldisek beti eskaintzen duena emanen dut. Gainera, kanpoan egon ondoren, freskotasuna eta esperientzia ondoan izanen ditut. Gazteei ere lagundu nahi nieke, nirekin egin zuten gisan. Golak sartzea ere espero dut, noski, lehen lerroan gogor estutuz.

Asko aldatu da behin utzi zenuen taldea eta orain topatu duzuna?

Oro har, ez dut uste asko aldatu denik. Dena den, behin taldean nabilela hobeki jakinen dut. Joko sistema antzekoa da; egia da orain mugikortasun handiagoa dagoela. Lehen eskarmentu gehiago zuten jokariak aritzen ziren, baina orain gazteagoak dira, eta dinamikoago jokatzen dute.

Urte gorabeheratsua izan da Xotarendako.

Zaila izan da, eta ez zuten merezi hainestu ibiltzea. Azken finean, gola sartzean datza areto futbola, aurkariak baino bat gehiago sartuta nahikoa da, ondo jokatutik irabaztea merezi arren.

Zein helburu dituzu datorren denboraldiari begira?

Espero dut kopa eta play offean sartu ahal izatea, zaila izanen den arren, talde guztiak gogor ari baitira borrokan. Baina uste dut egin dezakegula, badugu talde ona; eta jokariak apur bat finduta, eginen dugulakoan nago. Horretara etorri naiz.

Nola ikusten duzu Miguel Hernandezen rol berria?

Oso pozgarria da guztiontzat bera entrenatzaile izatea. Oso prestatutik ikusten dut; gainera, bigarren entrenatzailearen, Roberto Martilen laguntza edukiko du. Gogotsu ikusten dut, aurrean duen erantzukizunaz jakitun.

Eta Roberto Martilena?

Robertok ondo merezita du. Jokari guztiak bereganatu ditu eta hori zaila izan ohi da. Lideratzeko jaio da; barrenean dakar. Oso lagungarria izanen zaio Migueli, eta gainerako taldeen errespetua eta begirunea erakarriko ditu "Palotek". Jokari gisa ere ariko da, aldi berean, eta bi funtzioak aurrera eramateko gai ikusten dut. Luzerako izanen dugu Roberto.

Irurtzungo futsal campusean ere ibili zara berriki.

Bai, iragan astean aritu ginen. Izugarria da; haur guztiez disfrutatu dugu, oso aste polita da niretzat. Egiten duguna gustatzen zaigula ikustean berehala kati-gatzen dira haurrak, eta beren aurpegi alaiek poztasuna eta gogobetetasuna sorrarazten dizkigute.

Etxajua jaurtiko duzu herriko festetan.

Orain gutxi esan zidaten. Pozet txoratuta nago. Hori bai, hitz batzuk botatzeko eskatu didate, eta oraindik pentsatu behar dut zein hitz esan.

Altunak sanferminetako finala irabazi du Ezkurdiaren aurka

ESKU PILOTA Amezketa bostgarrenez irabazi du sanferminetako lau t'erdiko finala

ARBIZU

Altuna III.ak 22-13 irabazi zion uztailaren 1ean Ezkurdiari, eta, hortaz, sanferminetako finala bereganatu du. Sopelako Udal Pilotalekuan Lau t'erdiko finalerako txarteletako bat jokatu

zen, eta bi pilotariak labana hortz artean zutela kantxaratu ziren.

Orpoz orpo ibili ziren, lehia estuan. Ezkurdia izan zen erasotzen lehena, bi pareta eta bi bolea geldiezinekin,

markagailuan aurea hartuta. 3-0. Altunak, ordea, berehala erantzun eta azkar asko eman zion buelta markagailuari (4-4).

Berdinketa gainditu eta gipuzkoarrak hartu zuen aurea, 4-7, baina Ezkurdia trebe aritu zen, eta ustekabeko bi paretekin aurkaria harrapatzea lortu zuen (8-8). Halere, ezin izan zuen Altuna harrapatu, eta bi goitik iritsi zen gipuzkoarra lehen atsedendira. 10-12.

Bigarren zatian hautsi egin zen partida, eta Amezketa alde zabaldu zuen (10-16). Beste behin ere, erremate katalogo zabala eta defentsa oso ona zuela erakutsi zuen, eta nagusitasunari eutsi zion, markagailua Altunaren alderantz guztiz irauli eta partida irabazi zuen arte, 13-22.

Hurrengo helburua, San Fermin Txapelketa irabaztea du gipuzkoarrak, uztailaren 7an, Labriten, jokatu den partidaren.



Altuna eta Ezkurdia. OSKAR GONZALEZ

"Sentsazio ona dut sanferminetara begira"

AITOR OIARBIDE HARRI JASOTZAILEA

HARRI JASOTZEA Nafarroako harri jasotze txapelketan iaz lortu zuen marka hobetzea espero du; gogor entrenatu dela azaldu du

Iñaki Rubio Mendoza

ETXARRI ARANATZ

Etxarriko ikastolan, ikaslea zela, herri kirolen munduan murgildu zen Aitor Oiarbide etxarriarra. Irurtzunen harri jasotze eskola bat irekiko zutela esan zioten, eta bertan hasi zen harriak mugitzen. Orduan ezagutu zuen Mikel Lasarte, eskola horretako entrenatzailea, eta geroztik alboan izan du Oiarbide, mentore gisa. Egun 30 urte ditu, eta ia hamar urtez apenas lehiatu gabe egon den arren, sekula baino gogotsuago dagoela azaldu du. Sanferminetan eginen den Herri Kirol Jaialdian ariko da, uztailaren 13an, Iruñeko Foru Plazan.

Etxarriko ikastolan hasi eta Sakana Harri Jasotze eskolan jarraitu duzu trebatzen, Mikel Lasarterekin. Bai, berak irakatsi dit dakidan guztia. Gaur egun ere ezinbestekoa dut, bera ez balego entrenamenduak eta abarrak ez lirake berdinak izango.

Nafarroako Harri Jasotze Txapelketan aritu zinen iaz, sanferminetako herri kirol jaialdian. Aurten ere ariko zara.

Hiru harri jasotzaile geunden, eta azkena izan nintzen, osotara 2675 kilo jasota. Etxarriko Euskal Festan erakustaldi bat egiteko eskatu zidaten, eta serioago entrenatzen hasi nintzen. Gogotsu



Aitor Oiarbide harri-jasotze erakustadi batean. AITOR OIARBIDE

"INDAR KONTUA BADIRUDI ERE, TEKNIKA DA GARRANTZITSUENA HARRI-JASOTZEAN"

ekin nion eta sanferminetara joatea erabaki nuen. Bizpahiru hilabetez trebatzen ibili nintzen, nahiz eta emaitzak ez ziren esperotakoak izan.

Zer dela-eta egon zara harri jasotzetik aldendurik?

Lana dela-eta bereziki. 22 urte nituenean aldendu nintzen apur bat. Orain, 30 urte ditut. Noizean behin ibili izan naiz entrenatzen; izan ere, betidanik gustatu izan zait. **Gogotsu aurtengo sanferminetako erakustaldirako?**

Bai. Aurten gehiago trebatu naiz, eta espero dut dena hobeto joatea. Sentsazio ona dut. Egiten dudana erakustaldi bakarra da, gainera, sanferminetako. Gainera, sanferminetako herri kirol jaialdian baita, Nafarroako harri jasotze txapelketa eginen da. **Zein da zure indargunea?**

Teknika dela esanen nuke. Gaur egun dauden harri jasotzaileekin alderatuz gero, nahiko txikia naiz. Beraz ez naiz pisua altxatzeagatik nabarmentzen. Malgutasunean datza nire teknika. Flexibilitate asko behar da harria jasotzeko eta mugitzeko.

Zilindroa, kubikoa edo bola nahia-go?

Kuboa. Hoberen datorkidan harria da, teknikoena da, eta gehien disfrutatzen dudana da.

Zein da jaso duzun harri astunena?

Etxarri egin zen Nafarroa Oinezan, 2009an, 150 kilojasonituen, 16 urterekin. Plazatik at, entrenamenduetan, 165 kilokoa jasota daukat, baina ordutik ez dut probarik egin, Irurtzuno eskolan ez baitugu harri handirik.

Harri jasotzea eta, oro har, herri kirolak osasuntsu daude?

Euskal Herri mailan, indartsuago ikusten dut, EITBk eskainitako Harri Herri programari esker, besteak beste. Nafarroan apalago ikusten dut. Hiru pertsona gabiltza, azken batean, harri jasotzean. Agian badu zerikusirik saio horretako parte hartzaile guztiak gipuzkoarrak izateak. Nafarren bat agertuko balitz...

Aholkurik hasiberrientzat?

Pazientzia izan dezaten, eta, batez ere, beren helburua ez dadila izan kiloak mugitu eta harri handiak jasotzea, astakeriarik gabe, poliki-poliki. Indar kontua badirudi ere, teknika da garrantzitsuena. Behin hori menderaturik, konstantzia izatea da gakoa. **Emakume asko dabilta herri kirolletan?**

Azken urteetan zerbait bai. Berriozarren, esaterako, indartsu dabilta emakumeak azkenaldian. Emakumeen erakustaldi batzuk egin dituzte. Polita da neskatoen herri kirol mundua berpiztea.

FUTBOLA Gastesik Athleticekin eginen du denboraldiaurrea

Athletic Clubeko Ernesto Valverde entrenatzaileak, besteak beste, Oier Gastesi altsasuarra izanen du taldean, denboraldiaurrean aritzeko. Taldeak azaldu duenez, atezainak behar dituzte denboraldiaren hasierarako, Athleticen atezain Unai Simon eta Julen Agirrezabala beranduago sartuko baitira; Gastesi hautatu dute horretarako.

Hugo Rincon eta Miguel Barandalla nafarrak ere arituko dira Valverderen agindupean. Basconia filialean aritu zen Gastesi aurreko denboraldian, eta estreinakoz ariko da lehen taldearekin.

"Oso pozik nago, izan ere, hauxe da lan guztiaren helburua, lehen mailan aritzea", azaldu du altsasuarrak. Uztailaren 6an hasiko da entrenamenduekin, eta bi astez egonen da Valverderen aginduetara. "Ondo aprobeztatu nahi dut, eta ahal den guztia luzatu". Bilbao Athleticen hasiko du denboraldia, B mailan, eta espero du noiz edo noiz pro-

ARETO FUTBOLA Barrotek Xota utziko du, eta de Pablos sartuko da

Pol Barrot kataluniarrak ez du Xotan jarraituko datorren denboraldian, eta taldea utziko du Iruñera iritsi eta urtebetara. Lehenengo taldearekin aritzeaz gain, bigarren B-ko filialean ere aritu da.

Bestalde, Eloy de Pablos segoviarrak Xotan jokatu du, talde horrek Inter Movistarrekin egindako zesio baten ondorioz. 20 urteko gaztea lehen aldiz ariko da lehen mailan, eta etorkizun oparoa izan lezakeen jokalaria da. Dani Saldiserekin batera ibili da Movistar Inter taldean, beraz, elkarlanean arituko dira berriz ere.



Adur Senarrek Entzierroko Lasterketa irabazi du

LASTERKETAK Herri Lasterketa proban gailendu da, gizonezkoen kategorian

LAKUNTZA

Adur Senar lakuntzarrak Entzierroko 38. lasterketa irabazi zuen iragan igandean, Iruñean, Herri Lasterketa probako gizonezkoen kategorian. Zezenek eta korrikalariek egin ohi dituzten


800 metroak osatu zituzten 250 lasterkarik, bost kategoriatan. Nobedade gisa, kategorian maskulino eta femeninoa batu dituzte aurten, antolakuntzaren arabera, diskriminazioa ekidite aldera.



Adur Senar, lasterka. IRATI AIZPURUA.

FUTBOLA Gorka Pascua, Osasuna B-ren buruan

Osasunak haren talde filialak biribildu ditu, eta Gorka Pascua altsasuarra izanen da emakumezkoen B mailako entrenatzailea. Espainiako Federazioko bigarren mailan ariko dira, iragan denboraldian urte oparoa izan ostean. Izan ere, lehen aldiz jokatu zuten maila horretan, eta mantentzea lortu dute.



Paula Ostiz bere taldekideekin batera garaipena ospatzen. PAULA OSTIZ

Nafarrak bikain, kadeteen txapelketan

TXIRRINDULARITZA Murtzian egin da Espainiako lehiaketa, ekainaren 29tik uztaillaren 1era, junior, kadete eta infantil mailetan. Kadeteen Nafarroako selekzioak zilarrezko domina eskuratu zuten errepedeko lasterketan

SAKANA Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren ekainaren 29tik uztaillaren batera, Cartagenan (Murtzia), junior, kadete eta haurren mailetan. Nafarroako selekzioak emaitza ezin hobekak lortu zituen, eta hainbat sakandar aritu ziren tartean.

Emaitzarik onenak kadeteek eskuratu zituzten: emakumeen erlojupekoan Paula Ostiz nafarrak hegana egin eta denbora onena eskuratu zuen, 17:48. Gizonezkoen kategorian, Luca Martinez hamargarrena izan zen; Valentziako Enrique Maranchon irabazleak +1:10-eko denbora atera zion. Taldekako erlojupekoan ere fin

aritu ziren nafar txirrindulariak. Ane Beltran altsasuarrak 9. postua eskuratu zuen (18:35). Hortaz, taldekako sailkapenean laugarren posturantz igo zuten Nafarroako selekzioa. Gizonezkoetan, Ekain Imaz 10.a izan zen (15:49). Taldekako sailkapenean, Nafarroak laugarren postua eskuratu zuen.

Errepedeko lasterketan, 56,6 km egin zituzten lasterkariak, eta emakumezkoen mailan Pau-

ANE BELTRAN DE HEREDIA BEDERATZIGARRENA IZAN ZEN TALDEKAKO ERLOJUPEKOAN

la Ostiz izan zen lehena beste behin, (1:47:45). Ane Beltran ondo aritu zen, eta 21. postua atzitu zuen (+4:06). Nafarroa bigarrena izan zen taldekako sailkapenean, eta zilarrezko domina lortu zuten. Gizonezkoen mailan, ez zen sorpresa handirik izan; Ekain Imazek 14. postua bereganatu zuen (+0:00:36), oso gutxiatik. Infantilen kategorian ere hainbat sakandar aritu ziren: 15,3 kilometroko lineako lasterketa egin zuten lehenik, eta ginkana bat ondoren. Errepedekoan, Lucia Andueza eta Unax Etxeberria izan ziren ibarreko lehenak, eta bigarren proban, Eider Mazkieran eta Unax Etxeberria, beste behin.



June Kintana txapelketa batean, Larrabiden. J.P. URDIROZ

Kintana Federazio Autonomikoen Txapelketan ariko da

DISKO JAURTIKETA Silesiako emaitzak ez ziren esperotakoak izan; Iruñean hobeto aritzea espero du

Iñaki Rubio Mendoza BAKAIKU June Kintana bakaikuarra Espainiako Federazio Autonomikoen Txapelketa Absolutuan lehiatuko da, datorren uztaillaren 15ean, Iruñeko Larrabide Estadioan. Lehiaketa oso garrantzitsua da oso bertan ariko diren atletentzat, 2024ko Parisko Olinpiar Jokoetara joateko sarbidea lortu baitezakete.

Bakaikuarraren aburuz, gogorra izanen da txapelketa, "atleta asko baitaude eta denbora asko pasatzen delakoz jaurtiketa batetik bestera". Alabaina, sentsazio onak ditu Kintanak, eta etxean aritzeak motibatu egiten duela dio. "Aste honetan nire marka pertsonala hobetu dut, 58,08 metro, eta Nafarroako errekorra hobetu dut".

Goizeko 9:00etatik iluntzeko 22:00ak arte ariko dira atletak estadioan, eta eguerdiko

12:40an izanen da Kintanaren txanda. Sanferminetako festei amaiera emanen die txapelketak. Halaber, Nafarroako Atletismo Federazioaren urteurrena izanen da; 1923 jaio zen federazioa, eta 28 atletismo-klub barnebiltzen ditu.

Silesian, goibel

Taldekako Europako Txapelketa egin zen ekainean, Silesian (Polonia), eta emaitzak ez ziren esperotakoak izan Kintanarentzat. "Ez zen egun ona izan". Halere, Selektioko gainerako kideen emaitzei esker, laugarren postua eskuratu zuen taldeak.

"MARKA PERTSONALA HOBETU DUT, 58,8 M, ETA NAFARROAKO ERREKORRA HOBETU DUT"

Askargorta eta Galarza, lehen sakandarrak Irurtzun-Arakil-en

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsporteko lasterkariak ere bigarren klaseko lehenak izan ziren

Iñaki Rubio IRURTZUN-ARAKIL Sakana Motorsport eskuderiako Iker Askargorta eta Iñigo Galarza lehen sakandarrak izan ziren Irurtzun-Arakil Rallysprintaren Vedizioan. Gainera, lehenak izan ziren bigarren klasean (25:20.900).

Opel Astra GSi autoa erabili zuten. Nafarroako Rally Txapelketa jokatu zuten bertan. Joseba Iñarrea eta Andoni Kamino izan ziren Arakil Motorsport eskuderiako hoberenak, eta 4. klasean lehenak izan ziren (24:20.100).

Garikoitz Goñi lasterketaren sortzaileetako bat da, eta urtero dabil antolaketa lanetan. Balorazio positiboa egin du: "aurten 51 dortsal banatu ditugu eta giro ezin hobea izan dugu". Izan ere, jendetza bildu zen errepedearen bazterretan, rallyaz gozatzeraz. Antolakuntzari dagokionez, ordea, esan du urtez urte ekintza prestatzeko boluntario gutxiago biltzen direla. "Hasieran, talde anitza ginen, baina bata dela eta bestea dela geroz eta gutxiago gara".



Iker Askargorta eta Iñigo Galarza, podiumean. AVM RACING



Jon Arretxe Beleixe irratian, artxiboko argazki batean. ARTXIBOA

Liburuetatik pantailera

Jon Arretxe idazleak sortutako Toure detektibearen liburuetan oinarrituta 'Detective Touré' telesaila grabatzen ari dira. Idazleak "kameo" txiki bat izanen du ikus-entzunezkoan, eta hasieratik proiektuan "oso inplikaturata" egon dela esan du

Eneida C. M. / Erkude R. B. ARBIZU
Aspaldian esaten ari zen Jon Arretxe bazegoela Toure ikus-entzunezko bihurtzeko proiektu bat, eta orain konfirmatu egin da: Toure erreallitate izanen da, eta Malcon Treviño Site aktoreak gorpuztuko du. "Niri oso luzea egin zait, baina eurek esaten didate errekorra izan dela, inoiz baino bizkorrago lortu dutela". Hiru hilabetez Arretxeren nobeletan oinarritutako Detective Touré miniseriea grabatuko dute; eta 2024ko lehenengo sei hilabeteetan mustuko dute, ETB1en euskaraz lehenengo, eta RTVEN, ondoren. Besteak beste, Itziar Ituño, Unax Ugalde, Loreto Mauleon, Lander Otaola, Ayoub El Hilali eta Jon Olivares aktoreek osatuko dute aktore zerrenda.

"Bi ekoiztetxe handik erakutsi zuten interesa Toureren nobeletan oinarritutako serie bat

egiteko. Duela bi edo hiru urte izango da. Horrelako proiektuak, maiz, bidean pikutara joaten dira gauza bat eta besteagatik. Ez, hobeki esanda, diruagatik". Serie bat egiteko diru asko behar dela azaldu du Arretxek; eta, azkenean, Deaplaneta eta Tornasol ekoiztetxeek eta RTVEk eta EITBk proiektua aurrera ateratzea lortu zuten. "Oso tratu polita egin dute". Azkenean, proiektuari buruz hitz egin dezake Arretxek, "eta gustura, gainera".

Arretxerendako dena berria izaten ari da. Duela pare bat

"NIRI OSO LUZEA EGIN ZAIT, BAINA ESAN DIDATE INOIZ BAINO BIZKORRAGO LORTU DUTELA"

urte "hau egin nahi dugu" esan zioten. "Opzio bat esaten zaiona sinatzen da, non urte bat eta erdi daukaten ekoiztetxeek proiektu hori gauzatzeko, eta ni konprometitzen naiz proiektua beste inori ez ematen". Hortik aurrera "denak abiadura hartzen du", eta harrigarria izan dela esan du idazleak. "Orain, barrutik ikusita, flipatzen ari naiz zer den serie bat egitea. Kanpotik seriea ikusten dugu, baina barrutik dagoen mugimendua eta tratuak izugarriak dira". Arretxek aurretik opera mundua ezagutzen zuen, "hibrido baten modukoa dela esaten dute", opera kantatu izan duelako eta kanpotik ikusten dena "antzerkia" da, baina atzetik dagoena izugarrikoa da. "Ekipoa eta abar. Serie bat hori bider ez dakit zenbat da. Kristoren montajea,

oso interesgarria eta polita". Asko ikasten ari da.

Pertsonaia

Pertsonaiak erakarri ditu, Tourek berak. "Nik argi daukat. Nobela hauek idazten hasi nintzenean, nobela beltzak ziren aspalditik modan zeudenak, batzuk poliziakoagoak, sozialagoak, thrillerragoak... mila definizio daude, eta milaka istorio idatzi dira, aldaera txikiekin; baina, azkenean, aldaerak dira, gauza berberaren inguruan. Tramatzko bat sortzen da, ikerzaile batek ikertzen du...". Baina Arretxek sortutako sagan protagonista nagusia bestelakoa da: "Etorikina, ilegala, afrikarra, oso egoera berezian bizi dena eta sekulako xarma berezi duena. Berehala lortzen du irakurleen enpatia. Kristoren astakeria egiten dituen arren, jendeak jarraitzen du maitatzen".

Proiektua aurrera eraman dutenek liburuak irakurri zituzten, batez ere lehenengoak, eta ikusi zuten "kristoren pertsonaia" dela serie original bat sortzeko: "Kontua hori da, originaltasuna, denok bilatzen duguna. Idazleok, zinemagileek... Irakurlea edo ikuslea harrituko duen zerbait, berria, eta hortxe ikusi zuten Toure". Historian lehenengo aldiz, serie batean, protagonista beltza dela esan du Arretxek: "Ez nintzen horretaz jabetu; baina, agian, egia da". Idazleak esan du garrantzitsua dela serie batean afrikar beltz bat izatea protagonista.

Liburuetan agertzen den bezala hartu dute pertsonaia, baina tramak asko aldatu dituzte. "Baina pertsonaia bera seriearen eta sagaren ardatza dena, bere horretan mantendu dute. Aktore egoki bat topatu dute, ez da nobeletan bezain handia fisikoiki, nobeletan handiegia zelako". Malcon Treviño Site izanen da Toure. "Hispano-ginearra esaten dena da, Madrilen bizi da, eta serie batzuetan parte hartu izan du. Oraingo ez da oso aktore ezaguna, baina, serie honi esker, hala bihurtzea espero dute". Idazleak azaldu duenez, Euskal

"SAN FRANCISCO AUZOAN GRABATZEA NIRETZAKO OSO GARRANTZITSUA ZEN, ASKO ZOR DIOT"

Herrian ez dago aktorerik paper hori egiteko modukorik; eta Espainian, gutxi. "Beraiek hasieratik ikusi zuten: hau izan behar da. Ni pozten naiz, oso tipo jatorra da". Aktore ezagunek parte hartuko dute seriean, tartean Itziar Ituño basauriarak, Arretxeren herrikideak: "Poz handia hartu nuen. Ekoizleek esan zidatenean Itziar konbentzitu zutela eta asko poztu ninduen. Aktore oso ona da, sariak dauzkana; gaur egun, puntakoa. Pertsona bezala ere maitagarria eta mirezgarria da, betiko Itziar izaten jarraitzen du, eta hori ez da erraza".

Grabazioa

Sei kapituluko miniseriea hiru hilabeteetan grabatzen ari dira, eta urte amaierako post-produkzioa eta muntaia eginen dituzte. 2024an emanen dute pantailetan. Bilboko San Francisco auzoan grabatzen ari dira ikus-entzunezkoak: "Niretzako oso gauza garrantzitsua zen. Hor izan zedin. Serie bat eginen zutela esan zidatenean eta kontratua sinatutakoan, berez, nahi dutena egin dezakete, Bartzelonara, Madrilera, Parisera... eraman. Baina San Franciscon grabatuko zutela esan zidaten, eta ni oso pozik nago, auzo horrekin zorretan nagoelako".

San Francisco auzoa "oso estigmatizatuta" egon da; eta, prentsan agertzen denean, "zerbait txarragatik" izan ohi da. "Gauza on batengatik agertzen ari dira, eta oso pozik daude. Gainera, taldeak bertako komertzioetan erosten ari dira...". Auzotarrak "flipatzen" ari direla esan du idazleak.

Arretxe "nahiko inplikatu" da. "Haiekin harremanetan jarraitu dut, eta ni pozik egoten ahalegindu dira beti". Gidoiak irakurri ditu, eta seriean "kameo" bat izanen du, "Arriagan kantatuz". Atikilt eta Mai Linh Arretxe, idazlearen seme-alabak ere agertuko dira. "Figurante pila bat behar dira, baina ez gure moduko txuriak, kanpoko jatorri itxura dutenak behar dituzte, San Franciscoko biztanle naturalak. Gure seme-alabak, jatorriz, kanpokoak dira. Haietako bat figurante moduan aterako da eta aktore lantxo bat izanen du. Toureren laguna izanen da alabatxoa". Grabazioa oso esperientzia polita izaten ari dela esan du Arretxek.

"Honek herriari bizia ematen dio"

Urdiainen galduta zegoen ohitura bat berreskuratu dute Peru Goikoetxea Irisarrik eta Cristobal Goikoetxea Galartzak. Hainbatendako geroan eta hobeto ari omen dira, nahiz eta "kaxkar batzuk" esan siesta izorratzen dietela

Alfredo Alvaro Igoa URDIAIN

1 Zuen, musika egitea da?

Cristobal. Bakarren batzuek esaten dute heavy metala egiten omen dugula (kar, kar, kar). Ni ez naiz musikaria. Honi esan nion: "hasiko gaituk ezkilak jotzen? Ba, benga ba!" Lehendabiziko egunetik zelebre samar, baina gero eta hobeto gabiltza, pixkaka-pixkaka hobetzen. **Peru.** Beti gustatu zaizkit ezkilak, musika-eta. Txirrinta neukan. Ematen hasi, eta, arre, ezkilak jotzera!

2 Nolaz bururatu zitzaizuen?

C. Honi horrelako gauzak gustatzen zaizkio. Herrian inork ez du ezkilarik jotzen. Gogoratzen nintzen haurretan ezkila jolearekin, Miguelekin, eliz dorrera igotzen nintzela. Han ikusten nuen tilin-talan, binbin, banban, binbin, banban... Tonuren batez-edo gogoratzen nintzen. Biok etorri ginen. Etxean nola jo pixka bat pentsatu, zer tonurekin jo. Eta, hi, lehendabiziko egunean nahiko ondo! Gero hobetzen joan gaituk.

3 Zuen gustuko instrumentu txikiagorik ez zegoen?

P. Txikiagoak badaude, jotzen ditugu. Baina hauek haundiak dira. On edo txar, gurdi haundi. **C.** Altsasun haundiagoak daude, haiek ere aurki jo behar ditugu.

4 Zenbat ezkila dituzue?

C. Bi haundi eta bi txiki. Santa Barbara grabea, Santa Maria fina eta txikiak...

P. Santa Elena eta San Joan Bataiatzailea.

5 Noiz hasi zineten?

P. Badaramatzagu pare bat hilabete. Herrian ez zen jotzen. Azken ezkila jolea Miguel Andres izan zen. Pare bat urte da hil zela.



Peru Goikoetxea Irisarri eta Cristobal Goikoetxea Galartza Urdiaingo ezkila dorrean.

Jotzeari aspaldi utzi zitzaion, eta guk berreskuratu egin dugu. Gu hasi gara lehenagoko erritmo horiekin, erritmo berriak sortu eta, bai.

C. Zaharrak-eta poztu ziren. "Benga, segi-segi, segi aurrera, gero eta hobeto zabilzate! Ez utzi, ez utzi".

6 Ez zarete kanta bakarreko musikariak, ezta?

P. Askok ditugu. Zenbatzen egon ginen eta pila atera ziren.

C. Hamar-hamabi, bai. Eta zortzi-bat jotzen ditugu.

7 Partitura? Bestela, nola berreskuratzen dira erritmoak?

C. Partitura elegantea dugu A4 tamainako kartoi batean: ton, ton-tin-ton-tin... Arkatzez idatzia dago, han begiratu, eta hor konpon. Hura jotzeko ahalegina egiten dugu, gutxi gorabehera

dena tonu batean. Baina azkar-azkar jotzen hasten garenean, ba, berrikuntza. Erabateko inprobisazioa. Hil ezkilak-eta jotzea erraza da. Eta suarena ere bai. **P.** Mezatarako deia zegoen bakarrik. Domekaren batean jo dugu. Baina ez dakit domeka egun ona den, larunbatetan aupatxo egiten dugu-eta.

C. Meza behin jo nuen, nik ez dut jotzen. Honek jotzen du.

8 Noiz jotzen duzue?

C. Tabernara kafea hartzera joaten gara egunero. Tabernak 16:00etan ixten du. Eta zer egin ez dakigunez, etortzen gara ezkila jotzera, jendeari siesta izorratzeko (kar, kar, kar).

P. Jende heldua kontentu dago. Badaude kaxkarrak, batere gustatzen ez zaiena. "Siesta izorratzen duzue, siesta izorratzen duzue". Hau bitzta da! Honek herriari

biziaz ematen dio. Herrietan hau ez balego, ez legoke ezer. Ezkilak jotzen dituzu, eta, behintzat, herria pozten duzu. Batzuei siesta izorratu? Bale, ongi. Baina herria pozten duzu, ukitu oso polita ematen du.

C. Nahi dugunean jotzen dugu. Honek poltsan dauzka elizako giltzak. Hori gurea da, eta nahi dugunean, jo eta fuera!

9 Etxean entseatu daiteke?

P. Hor goian entseaten dugu. **C.** Entseguak mundu guztiak aditu egiten ditu. Kritikatu ere bai! Guk ondo hartzen ditugu, kritika positiboa!

P. Normalean, hiruzpalau minutu aritzen gara. Indar handia behar da. Azkeneko, nekatu egiten haiz.

10 Mihiari heltzen diozue, edo sokarekin aritzen zarete?

P. Sokak paratzen saiatu ginen, baina ezin da. Eta mihiari helduta, zuzenean, jotzen dugu. Jakina, besoa kargatzen da! Giharra egiten da.

C. Santa Barbararen mihiak 20 bat kilo ibiliko ditu.

11 Bakarren bat gerturatu zaitzue?

P. Biok. Kuadrillakoek-eta ez daukate igotzeko balorerik. Jende ona da, eh! Beste gauza batzuetarako badute.

C. Lotsatu egiten dituk. Gu, ez. **P.** Herri guztiak aditu behar duela, txarki egin behar duela...

Berez, gauza polita da eta ez daukate ezertan lotsatu beharrik. **C.** 14-16 urtekoak, asko hobe hemen, ezkilak jotzen. Ederra da!

BADAKIZU ZER EGITEN DUGUN?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f o
619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

